


EUSKAL HERRIAREN
BESTELAKO BEGIRADA
EKONOMIKO ETA
SOZIALA

2015eko otsaila 1. zkia



**KAPITALISMOAREN
ONDORIOAK
EUSKAL HERRIAN**



**KAPITALISMOAREN
ONDORIOAK
EUSKAL HERRIAN**

sortu

Aurkibidea

1. NAZIOARTEKO EGOERARI BEGIRADA AZKARRA	8
1.1. MUNDU MAILAKO EGOERA DESOREKATUA	8
1.2. EUOPAR BATASUNAREN EGOERA LARRIA	8
1.3. ARAZO GEOESTRATEGIKOEK SORTZEN DUTEN SEGURTASUN EZA	10
1.4. PETROLIOAREN KRISIA ETA FINANTZA-BURBUILAREN EZTANDA BERRIAREN AUKERA	11
2. ESTATU ESPAINOLAREN KRISI SAKONAK	12
2.1. ZAPATEROREN "BROTOS VERDES"ETIK, MONTOROREN "ESPAÑA A LA CABEZA DEL CRECIMIENTO"RA	12
2.2. ESTATUKO EKONOMIAREN EGITURAZKO EGOERA OSO AHULA DA ETA KRISI ANITZ DITU	13
2.3. KRISI EKONOMIKOA, OLIGARKIZAZIO ZEIN ZENTRALIZAZIO POLITIKORAKO PROZESU GISA	18
3. EUSKAL HERRIARI BESTELAKO BEGIRADA EKONOMIKO ETA SOZIALA	19
3.1. KRISIA ETA KAPITALISMOAREN OLDARRALDI NEOLIBERALAREN ONDORIOAK EUSKAL HERRIAN	19
4. ONDORIO OROKORRAK	32
5. AURRERA BEGIRA ZER?	35

Lehman Brothers erraldoia erori eta nazioarteko finantza-ekonomiaren krisia abiatu zenetik sei urte pasatu dira jada. Duela gutxi ordea, azaroan, Jack Lew, Amerikako Estatu Batuetako (AEB) altxor publikoko idazkaria eta agerikoa denez Sortuko kidea izatetik oso urrun dagoena, Europan hamarkada oso bat galtzeko aukeraz mintzatu da. Egungo krisi egoera urtetan luzatuko den errealitatea iragarri besterik ez du egin.

Bitartean eta urte hasiera honetan, Euskal Herrian eta estatu espainiarrean, “ekonomia hobetzen ari da” bezalako esaldiak ugaltzen ari dira eragile politiko eta ekonomiko nagusien ahotan. Ekonomia hobetzea zer den ordea, oso bestelakoa da gure begirada nora zuzentzen dugunaren arabera. Zer da hobetuko dena? Jende xehearen bizitza duinerako aukera edo burtsaren edota enpresa nagusien edo finantza-oligarkiaren mozkinak?

Eskutan duzun txostenak, bere lehen begirada atzera joko du, krisia deiturikoak izan dituen eraginak aztertzeke. Iraganean gertatu denaren jakitun ez denak nekez jakingo baitu etorkizunari nola aurre egin.

Aurrera egiteko atzera begiratzea lehen erabakia izan den bezala, begirada hori nora eta nola zuzentzeak ere garrantzia du. Kapitalismoaren kontrola, oro har, hain da handia eta ikuspegi neoliberala hain hedatua ezen zaila suertatzen baita bestelako begirada ekonomiko eta soziala burutzeko beharrezkoak diren bitarteko estatistiko edo adierazleak ere topatzea. Eskutan duzun lanak norabide berri batean begiratzea izan du helburu baina jakin badakigu oraindik ere handia dela arlo honetan egin beharreko lana. Hurrengo lanetan atal honetan sakontzeko konpromisoa da oraingoan bermatu dezakeguna.

Lan honek hiru atal ditu. Lehenean, nazioarteari luzatzen diogun begirada azkarra eta aurreikuspen labur bat topatuko duzu. Bigarrenak, krisia deiturikoak estatu espainiolean izan dituen ondorioak era labur batean aztertzen ditu. Eta hirugarrenak, begirada pausatuago batez, Euskal Herrian pairatu ditugun ondorio lazgarriak aztertzen ditu, baita egoerari buelta ematen hasteko lehen hausnarketa orokor bat ere.

Ez genuke amaitu nahi gonbidapen bat luzatu gabe. Atzera egin dugun begirada hau eskertu nahi dugun hainbat jenderen ekarpenaren ondorioz osatzea lortu dugun bezalaxe, etorkizunari begira ditugun erronkei nola aurre egin eztabaidatu eta zehaztu ahal izateko, denon ekarpena ezinbesteko dugu. Zalantzarik ez izan, zure ekarpenaren zain gaude.

1. NAZIOARTEKO EGOERARI BEGIRADA AZKARRA

1.1. MUNDU MAILAKO EGOERA DESOREKATUA

Munduko ekonomiaren datu makroekonomikoez egoera desorekatu baten aurrean gaudela erakusten dute:

- AEBen Barne Produktu Gordina (BPG, hau da, herri baten ekonomiaren ekoizpen guztia), % 2,7 igo da urria bitartean, inbertsio industrialak pisu handia izaten ari da eta langabezia une honetan % 6,2an kokatzen da.
- Japonian ordea igoerarik ez da izan, kontsumoa, publikoa zein pribatua, asko jaitsi da eta inbertsioa izan da soilik goranzko joera izan duena. Langabezia tasa % 3,7an kokatzen da.
- BRICS (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) deritzon taldeak dihardu une honetan indar gehixeagoz, nahiz eta azken urteotako joera zertxobait apaldu den eta euren arteko ezberdintasunak badauden. Txinaren igoera % 7an kokatu den bitartean, Brasil, Errusia edo Indiaren igoera % 3,7ko batezbestekoa izan da. Oro har, kanpo merkataritzaren zein kanpo kapitalaren inbertsioen beherakada pairatzen ari dira, amaierarik gabeko kontsumoan oinarritutako garapen ereduaren mugak azaleratuz

Izan ere, nazioartekotzea etengabe aldarrikatzen den honetan, munduan ekoizten den guztia kontsumitzeko sistema berak dituen ezintasunak geroz eta agerikoagoak dira. Hobe genduke beraz garapen endogenoari denok garrantzia gehiago emango bagenio.

1.2. EUOPAR BATASUNAREN EGOERA LARRIA

Hasieran esan bezala, larriagoa da Europar Batasuneko ekonomiaren egoera. Azken urte artekoaren datuak dio Europako BPG % 0,8 igo dela soilik. Hori

gutxi balitz, Europako banku zentralak atzeraldiaren arriskua ere ikusi du eta hurrengo urterako aurreikuspenak beheranzko joerarekin moldatu berri ditu.

Lehen aipatu ditugun herrialde ezberdinekin alderatuz, Europako inbertsioak ez du gora egiten eta ez du egingo. Zor pribatu eta publikoaren tamaina hain handia izanik, bestelako gastuetarako aukera erabat baldintzatzen du, bai inbertsioaren alorrean zein gastu pribatu zein publikorako.

Horren ondorioak argi ikus daitezke, adibidez, Ikerketa Garapena eta Berrikuntzaren (I+G+Bren) alorreko datuetan. AEBetan alor horretako inbertsioa % 2,6 den bitartean, Europan batezbestekoa % 2,2 da, horrek aurrera begira izan ditzakeen ondorioekin.

Aurrera begira jarri gabe ordea, egun jada Europako krisia nor ordaintzen eta pairatzen ari den erraz laburbil daiteke:

***Europan, gutxi batzuk
aberasten ari diren
bitartean, gehiengoaren
egoera sozial eta
ekonomikoa nabarmen
kaskartzen ari da,
pobrezia, prekarietatea
eta langabezia-tasa
handiak iraunkor
bihurtuz.***

- Europako egoerari dagokionez, gutxi batzuk aberasten ari diren bitartean, gehiengoaren egoera sozial eta ekonomikoa nabarmen kaskartzen ari da, pobrezia, prekarietatea eta langabezia-tasa handiak iraunkor bihurtu arte.
- Zor publikoa herritar guztiok ordaintzen dugu, zergen bidez zuzenean edota murrizketa sozialen bidez.
- Zor pribatu handia duten sektoreak zuzenean “erreskatatuak” izaten ari dira modu ezberdinetan. Bankuen kasuan, zuzenean dirua lagaz eta zor publikoaren negozioaren bitartez; autopistak kudeatzen dituzten enpresak ere erreskatatu dira zuzenean eta zenbait eraikuntza-enpresa zeharka “erreskatatzen” dira gelditzen den obra publiko faraoniko apurra haiei esleituz (adibidez AHTa). Kotxeak

erosterako ematen diren diru-laguntzak erreskate hauen baitan ere koka daitezke. "Erreskate" horiek guztiak, nola ez, herritarrok zuzenean ordaintzen ditugu geure zergen ordainketaren bitartez.

- Azkenik, eta elementu larrienak, pobrezia eta langabezia dira. Bi datu emango ditugu:
 - Eurostaten arabera 2009tik 2012ra 9 milioi pertsona gehiago zeuden pobrezia edo bazterketa sozialaren arriskuan.
 - Bestalde, une honetan langabezia-tasa Europan % 11,5ekoa da, baina adibide gisa Alemanian % 6an kokatu badaiteke, estatu espainolaren kasuan % 24ra ere iritsi da.

1.3. ARAZO GEOESTRATEGIKOEN SORTZEN DUTEN SEGURTASUN EZA

Mundu mailako gertakari ezberdinen garapenak ondorio ezberdinak izan ditzake egoera ekonomiko orokorrean.

- Irak, Siria eta ISI Sen garapenarekin gertatzen ari denak ere ondorioak izan ditzake ekonomia mundialean, izan ere, petrolioaren prezioa une batetik bestera aldatu eta batere egonkorra ez den agertoki batean izan dezakeen eragina handia baita.
- Ukrainan gertatzen ari denak, AEBen asmoek eta kasu honetan Europar Batasunak berak, Errusiaren interesen aurka, erakutsi duen jarreratikoa, agerian utzi dute burutzen ari den gerra ekonomikoaren tamaina. Ukrainaren gasa eta posizio geoestrategikoak eta Errusia, BRICS delakoen partaide izateak nahikoa pista eman ditzake bi aldeen arteko talkaren aurrean gaudela ulertzeko: Errusia eta Europar Batasunaren arteko distantzia politikoa, ekonomikoa eta militarra areagotu nahi da AEB eta NATOren mesedetan.
- Hamarkadetako polobakarreko (AEB) munduko ekonomia batetik, polo anitzera joateko prozesua dago martxan. Txina bereziki, BRICS

delakoekin zein suspertzen ari diren bestelako ekonomiekin batera, bere lekua aldarrikatu edo irabazten ari da.

- Egoera horren guztiaren baitan ulertu behar da Europar Batasuna eta Amerikako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmenaren, TTIP delakoaren helburua: AEB eta EBren arteko merkatu handi eta bakar bat osatzea, indarra hartzen ari diren bestelako ekonomiekin lehiatu ahal izateko. Eta noski, soilik horren baitan uler daiteke azterketa honen hasieran aipatzen genuen AEBen kezka Europako ekonomiaren garapen ahularen aurrean.

1.4. PETROLIOAREN KRISIA ETA FINANTZA-BURBUILAREN EZTANDA BERRIAREN AUKERA

Luze joango litzateke petrolioarekin gertatzen ari den guztia aztertzea baina hona hemen aipamen batzuk:

- Urtetan petrolioarekin espekulatu duten sektore eta inbertitzaileak asko dira.
- Bestalde, frackingaren bidez petrolio ateratzeko beharrezkoak diren inbertsioak burutzeko finantza merkatuak arrisku handiak hartu ditu.
- Une honetan, fracking bidez, AEBren ekoizpena asko handitu da. Hala ere, asko dira petrolioaren prezioaren beherakadaren atzean, AEBren ekoizpena baino, Saudi Arabia, Errusia eta beste ekoizle batzuen ezkutuko eskua ikusten dutenak.
- Prezioaren beherakada honek ez du fracking bidezko ekoizpena bideragarri egiten eta ondorioz fracking bidezko enpresen etorkizuna ere zalantzan jartzen ari da.
- Azken hilabeteotan, AEBn enpresa batzuk erortzen hasi dira, bankuekin dituzten zorrak ezin ordainduz eta finantza sistemarentzat arrisku berri eta larri bat agerian utziz.

- Petrolioaren prezioaren beherakada mantenduko balitz, AEBn gertatzen ari dena, Europara ere heda daiteke hemengo enpresa ugari frackingari begira inbertsio erraldoiak egin berri dituztelako.

Horrek guztiak hurrengo hilabeteetan zer ondorio izan ditzakeen jakitea zaila da oso. Edonola ere, mundu mailako arazo geostrategikoen ugalpena eta petrolioaren krisiak abagune mugitu eta aldakorra eskainiko digu, hemengo politikari neoliberalek zabaltzen duten “krisitik ateratzen ari gara” horretatik bederen oso urruti.

2. ESTATU ESPAINOLAREN KRISI SAKONAK

2.1. ZAPATEROREN “BROTOS VERDES” ETIK, MONTOROREN “ESPAÑA A LA CABEZA DEL CRECIMIENTO” RA

Zapaterok Espainiako ekonomiaren “brotos verdes” delakoak aipatu zituenetik urteak pasatu dira eta berdeak baino, gorriak pasatzen ari dira estatu espainoleko milaka eta milaka familia eta langile.

Edonola ere, epe motzeko ikuspegia politikan ez ezik, alor ekonomikoan ere handia da Espainiako arduradun ekonomikoen artean. Oraingoan, Europako ekonomiaren erabateko ahultasunaren erdian, Espainiako ekonomia “Europako ekonomiatik tiratzen” ari dela adieraztera ere iritsi dira.

Azken hiru hilabeteotako datuak kontutan hartuta, estatuaren urte arteko BPGa % 1,6 igo da eta Europako igoera % 0,8koa izaki, harrotu egin ditu Espainiako arduradunak. Alperrik ordea. Errealitatea askoz ere gordinagoa da. Une honetan nazioarteko eragile ezberdinek 2015erako egiten dituzten aurreikuspen guztiak, estatu espainolarenak barne, esan bezala, beherantza moldatzen ari dira.

2.2. ESTATUKO EKONOMIAREN EGITURAZKO EGOERA OSO AHULA DA ETA KRISI ANITZ DITU

2.2.1. ZORRAREN KRISIA

Estatu espainolak une honetan duen arazorik larriena urtetan izan duen burbuillak sortutako zorraren eragina da.

Batetik, zor pribatua legoke, 2008tik hona handitu egin dena eta BPGaren % 313 izatetik, 2014an % 330 izatera pasa dena. Zor pribatuaren baitan honako zor hauek kokatzen dira: bankuenak, finantza enpresak ez direnenak eta familienak.

Bestetik, zor publikoa aipatu behar da. Zor publikoa, 2007an % 36 bazen, 2014an lehen aldiz % 100 gainditu du. Hala, une honetan interes tipoa asko jaitsi bada ere, estatu espainolak zorratik milioi asko ordaindu behar ditu. Adibidez, estatu espainolak 2015ean fiskalitatearen bidez 186.000 milioi jasotzea aurreikusten badu, ordaindu behar duen zorraren interesak 35.000 milioi izango direla aurreikusten du. Hau da, zergen bidez jasotzen den 5 euroatik 1 zuzenean zorraren interesak ordaintzera doaz.

- Ondorioz, estatu espainolaren zorra, publikoa zein pribatua, ikaragarria da eta honek hurrengo urteetarako inbertsioa eta gastua erabat baldintzatuko ditu, pribatua zein publikoa.
- Ez dezagun ahaztu, espainiar konstituzioan egin den aldaketa bakarra, 2011n Zapaterok bultzatuta, erakunde publikoek bankuekin duten zor publikoa ordainduko dutela bermatzeko izan zela. Beraz, espainiar estatuko herritarren beharrak edozein direla ere, instituzioek, lehenik, bankuekiko zorra ordainduko dute.

2.2.2. EREDU PRODUKTIBOAREN KRISIA

Estatuko ekonomiaren azterketa egiterakoan, egiturazkoa den beste atal garrantzitsu bat ere bada: industriaren egoera. 2007an BPGaren % 13 izatetik %11 izatera pasatu da eta beraz Alemaniaren % 19tik oso urrun dago. Esan beharrik ez dago edozein herrirentzat bere ekonomian industriak pisu nahikoa izatea oso garrantzitsua dela.

Hori gutxi balitz, oro har, estatuko industriaren maila teknologikoa “baxua” edo “nahiko baxua” dela esan beharra dago eta mundu globalizatu honetan sol-datekin “lehiatu” nahi izatea jada ezinezkoa edo alferrikakoa da.

Beste herrialdeetan inbertsio industrialak gora egiten ari denean, estatu espainolean 2007tik hona % 16 jaitsi da eta I+G+Bari begirako kopurua (% 1,3) oso urria da Europako beste herrialdeekin alderatuta.

***Estatu espainolean
industriaren egoera
2007an BPGaren %13
izatetik %11 izatera
pasatu zen. Inbertsio
industrialak 2007tik
hona % 16 jaitsi da
eta I+G+Bari begirako
kopurua (% 1,3) oso urria
da Europako
beste herrialdeekin
alderatuta.***

Aipatutakoari, azken urteetako garapen ekonomikoa eraikuntzan, publiko zein pribatuan, oinarritu dela gehitu behar diogu. Sektore hori ere une honetan birrindua dago eta ondorioz, estatuko ekonomia produktiboak dituen egiturazko gabeziak azpimarratzeko datu nahikoak badauzkagu.

2.2.3. KRISI SOZIALA

Langabeziak eta pobreziak muga guztiak hautsi eta aurrera begira egonkortzera joko dute. Datu makroekonomiko ugari azpimarratzek, askotan, horren atzean dauden pertsonak ahaztera eraman gaitzake. Eta zalantzarik gabe, langile klasea eta herri sektoreak, hau da, herritarron gehiengoa, izan gara krisiaren ondorioak jasan behar izan ditugunak eta egoera errotik aldatu ezean, krisiaren atal gordinena pairatzen jarraituko dugunak.

LANGABEZIA KRONIKOA

Estatu espainolean populazio aktiboaren inkestaren (EPA) azken datuak kontutan hartuz, 5,4 milioi pertsona dago **langabezian**. Horrek langabezia-tasa % 23,7an kokatzen du, Europakoa % 11,5ekoa den bitartean. Edonola ere, are larriagoak dira langabeziaren inguruan EPAk eskainitako beste zehaztasunak:

Estatu espainolean 5,4 milioi pertsona dago langabezian. Horrek langabezia-tasa % 23,7an kokatzen du, Europakoa % 11,5ekoa den bitartean

- Adin tarte ia guztietan emakumeen langabezia handiagoa da.
- Gazteen (<25) langabezia % 51koa da.
- Azken urte osoan lana aurkitu ez dutenak, alegia iraupen luzeko langabetuak, 3.352.000 pertsona dira, hau da, langabetuen % 61.
- Azkenik, eta benetan hausnarketarako parada eman beharko lukeen datu bat: estatuan 1.766.300 etxebizitzetako kide guztiak langabezian daude.

POBREZIAREN AURPEGIA

Estatistikako institutuak ateratako informearen arabera, estatu espainolean pobrezia tasa % 20 eta % 27ko tartean mugitzen da erabiltzen den neurgailuaren arabera. Edonola ere, bata edo bestea izan, estatuan dagoen pobreziaren errealtate gordina erakusten digu, datu positiboenean ere, estatu espainoleko 5 herritarretatik 1 pobrezian baitago.

Are larriagoa da, UNICEFen informearen arabera, 2014an, estatu espainolean 2.306.000 ume pobreziaren tasaren azpitik bizi direla eta pobrezia borrokatzeko neurriak Europako ahulenak direla jakitea.

LAN-ESKUBIDEEN GALERA, SOLDATEN JAITSIERA, ALDI BATERAKO KONTRATUAK ETA PREKARIETATEA

Azken urteotan PSOEk eta PPk inposaturiko lan erreformek eraso bortitza eragin diote langileriari. Hona hemen laburbilduz aipagarriak izan daitezkeen zenbait datu:

- Une honetan egiten diren hamar kontratutatik bederatzi aldi baterako kontratuak dira.
- 2008tik hona soldaten garapena prezioen garapenaren azpitik egon da oro har.
- Azken lan erreformaren ondorioz, hitzarmen kolektiborik gabe gelditu diren langileak milaka eta milaka dira eta horrek aurrera begira soldaten jaitsiera larriagoa iragartzen du.
- Azken urteotan, sektore publikoan eginiko murrizketak, lanordu kopurua igo eta langile publikoen soldataren galera nabarmena ere ekarri du.

2.2.4. “KRISIAREN” BESTE ALDEA: ABERATSEN KOPURUAK GORA EGIN DU NABARMEN

Langabezia eta pobreziaren gorakada, lan-baldintzen okertzea... hori guztia ez dator “krisiaren ondorioz”, sistema kapitalistaren beraren logikaren eta politika ekonomiko neoliberal zehatz batzuen ondorioz baizik. Aipatu errealtate gordinak ematen diren bitartean, aberatsen kopuruak gora egin du urtero Suisse Credit-ek publiko egiten duen dokumentuaren arabera.

Informe horren arabera, aberatsak milioi bat dolar duten pertsonak dira. 2013tik 2014ra 89.000 aberats gehiago dago estatuan, oro har, 465.000 aberats dagoelarik. Azken urtean, mundu mailan aberats kopuruak % 12 egin du gora, estatu espainolean aldiz % 24.

Are larriagoa da jakitea informe beraren arabera, % 10 aberatsenak estatu espainolaren aberastasunaren %55,6 duela, gainerako % 90ak % 44,4 banatzen duen bitartean. Horra hor, krisia deiturikoak gutxi batzuen kasuan izan duen eragina.

Langabezia eta pobreziaren gorakada, lan-baldintzen okertzea... hori guztia ez dator “krisiaren ondorioz”, sistema kapitalistaren ondorioz baizik.

Mundu mailan aberats kopuruak %12 egin du gora, estatu espainolean aldiz %24. Estatu espainolaren %10 aberatsenak aberastasunaren %55,6 du, gainerako %90ak %44,4 banatzen duen bitartean.

2.3. KRISI EKONOMIKOA, OLIGARKIZAZIO ZEIN ZENTRALIZAZIO POLITIKORAKO PROZESU GISA

“Krisia” abiatu zenetik gertakari politiko eta ekonomiko garrantzitsuak eman dira estatuan eta nabarmentzekoa da bi alderdi nagusiek parte hartu dutela eskuz esku dinamika honetan:

- Zapateroren gobernuak martxan jarri zuen lan-erreformen prozesua. Berak burutu zuen lehena eta ondoren PPK, bigarren erreformarekin irekitako bidean sakondu zuen.
- Zapatero gobernuan zegoela ekin zitzaion kutxen bankarizazio prozesuari, pribatizazioa eta kontrol publiko eta soziala galaraztea helburu zuelarik. 2013an PPren gobernuak, PNVren babesaz, banku-fundazioen legea onartu zuen prozesua bururaino eraman asmoz.
- Zapateroren gobernuak, PPren laguntzaz, aldaezina zirudien konstituzio espainiarra aldatu zuen bankuen eskuetan dagoen zor publikoaren ordainketa legez lehenetsia eta administrazio guztien gastu guztien aurretik bermatuta egon zedin. Gerora PPK finantza-egonkortasunari buruzko legea onartu zuen, konstituzio aldaketak zioena beteko dela bermatzeko eta murrizketa sozialen bitartez, zor publikoaren ordainketa bermatzeko.
- Rajoyren gobernuak administrazio publikoaren zenbait lege eta erreforma onartu ditu, udalen autonomia txikitzeko, sektore publikoa birrintzeko eta pribatizazio prozesu erraldoiak bultzatzeko.
- Rajoyren gobernuak bankuak erreskatatu zituen, alegia, herritarren dirua edo zor publikoa erabili zen bankariek urtetan eginiko zuloa estaltzeko. Guztiok dakigu gainera, erreskate horiek ez dutela herritarren edo enpresa txiki eta ertainengan inongo eragin positiborik izan; alta, bankuek herritarrei aplikatu dizkieten ordainketa-baldintzak askotan legez kanpokoak ere izan dira (IRPH kasu).

- Rajoyren gobernuak energiaren alorrean hartutako erabakiek oligopolio energetikoaren interes ekonomikoak bermatzea edo areagotzea dute helburu. Frackingari argi berdea ematea eta, adibidez, eguzki-energiaren auto-hornikuntzari trabak ezartzea adibide garbiak dira estrategikoa izango den gai honetan.
- Lege eta erreforma horiek guztiak, Euskal Herriaren eta bertako instituzio askoren iritziairen kontra hartu dira. Hori gutxi balitz, aurrera begira erabakitze eremua edo gunea, Madrilera eramaten dute. Politika neoliberal eta pribatizatzaile horien atzean, oligarkizazio prozesu bat dagoen bezalaxe, zentralizazioa eta inboluzio politikoa dakarren prozesua ere egon badago.

3. EUSKAL HERRIARI BESTELAKO BEGIRADA EKONOMIKO ETA SOZIALA

Euskal Herriko egoera aztertzerakoan, lehenik eta behin ekonomiaren helburua beharko luketen langileen, herritarren eta familien beharren azterketari so egin behar zaio. Gu bederen horrekin hasiko gara, krisia deiturikoak gurean izan dituen ondorioak aztertzeko.

3.1. KRISIA ETA KAPITALISMOAREN OLDARRALDI NEOLIBERALAREN ONDORIOAK EUSKAL HERRIAN

3.3.1. POBREZIA ETA BAZTERKETA SOZIALA GURE ARTEAN

Esku artean duzun dokumentuan bezalaxe, egoera ekonomiko eta sozialaren inguruko irakurketetan hainbeste datu publiko erakusteak, pobrezia gurean den errealitate lazgarria zenbakien artean ezkuta

dezake. Hego Euskal Herriko irakurketa egitera goazen honetan, azalduko ditugun datu eta zenbakien atzean gizon, emakume, edadetu edota umeak daudela gogoratzea nahiko genuke beraz. Pertsona errealak, pobrezia eta bazterketa soziala eta bere ondorioak pairatzen dituztenak.

Pobrezia neurtzeko irizpide eta adierazle ezberdinak daude. Edonola ere, berau ikertzen duten erakunde edo eragile ezberdin guztiak bat datoz ondorio batean: azken urteetan nabarmen egin du gora pobrezia gurean.

Pasa den udazkenean Caritasek Fundacion Foesaren ikerketa ezaguna publiko egin zuen eta haren arabera, hauek dira Nafarroako eta EAEnko bazterketa sozialaren datu gordinak:

- Nafarroan 115.000 pertsonak pairatzen dituzte bazterketa sozialaren ondorioak eta 48.000 lagun bazterka sozial larrian daude.
- EAEn berriz 360.000 pertsonak pairatzen dituzte bazterketa sozialaren ondorioak eta 113.000 lagunek bazterketa sozial larria pairatzen dute.

***Nafarroan 115.000
pertsonek pairatzen
dituzte bazterketa
sozialaren ondorioak
eta EAEn berriz,
360.000k.***

***Horietatik, Nafarroan
48.000 lagun daude
bazterka sozial larrian
eta EAEn 113.000.***

Bagenuen batuketa egitea, baina agian, soilik Nafarroan 48.000 pertsona bazterketa sozial larrian aurkitzen direla jakiteak, Sadarreko futbol zelaian sartzen direnak baina askoz gehiago, argigarria suerta

dakiguke. Zer esanik ez EAEko 113.000 lagun horiekin San Mames, Anoeta eta Mendi Zorroza erraz bete daitezkeela jakiteak.

Bazterketa sozial larria eta pobrezia Hego Euskal Herriko arazo sozial larrienean bihurtu diren honetan, politika publikoetan lehenetsun beharko balute ere, kasu gehienetan, zoritxarrez, horrela ez dela azpimarratzea ezinbestekoa da; aitzitik, laguntza sozialak jasotzen dituzten pertsonak estigmatizatu eta kriminalizatzeko joera areagotzen ari da, eskubide sozialek eskaintzen duten duintasunetik at, langile eta herri sektoreko kideon arteko lehia piztera iritsi arte.

3.3.2. HILABETE AMAIERARA IRISTEKO ZAILTASUNAK

Ez da beharrezkoa ordea bazterketa sozialaren arriskuraino joatea, krisiaren ondorioak noraino zabaldua dauden ikusteko. Adibide gisa, 2010ean “hilabete amaierara heltzeko zailtasunak” edo “zailtasun oso handiak” zituzten etxeguneak batuz % 16,2 aterako litzateke. 2013ko azken datuak kontutan hartzen baditugu aldiz, % 23,4ra iristen da datua jada. Datu horien arabera beraz, lau etxegunetik batek arazoak ditu hilabete amaierara iristeko.

Norbaitek esan dezake % 23,4 hori alde batera utziz, beste guztien egoera ez dela txarra, baina oker legoke. Oro har, etxeguneen kontsumoa 2009tik hona ia ez da igo eta gainera prezioak gastuaren gainetik igo dira.

Laburra bada ere, informe honetan energiaren aipamena egitea ezinbestekoa da. Aipatu bezala, etxeguneen kontsumo orokorra bere horretan mantendu bada ere, energiaren prezioak etengabe eta nabarmen egin du gora, familien energia gastuaren portzentajea baldintzatuz eta pobrezia energetikoa sorraraziz. Horrek zera esan nahi du, energia faktura ordaintzeko arazoak dituzten pertsonak edo familiak geroz eta gehiago direla.

3.3.3. LANGABEZIA, IRAUNKORTZEN ARI DEN ERREALITATE GORDINA

Pobrezia, bazterketa soziala edo hilabetearen amaierara iristeko zailtasunen arrazoiak ulertzeko, langabeziaz eta lan-esparruaz mintzatu beharrean gara. Hona datu trinko eta gordinak:

- Europako langabezia-tasa % 11,5 bada, Hego Euskal Herrikoa % 16,2 da.
- EPAren azken datuen arabera 220.500 pertsona dago langabezian Hego Euskal Herrian.
- Era berean, gazteen artean langabezia-tasa % 42 ingurukoa da, Europako altuenetarikoa.

Europako langabezia-tasa % 11,5 da eta Hego Euskal Herrikoa %16,2. 220.500 pertsona dago langabezian Hego Euskal Herrian.


Gazteen artean langabezia-tasa % 42 da, Europako altuenetarikoa.

Horrek guztiak langabeziaren gordintasuna mahai gainean jartzen badu ere, badira oraindik ere azpimarragarriagoak iruditzen zaizkigun bestelako bi errealitate:

Batetik, bi urte baino gehiago langabezian daramaten pertsonak 13.200 ziren krisiaren hasieran eta 2014ko abenduan berriz 93.600. Hona hemen iraupen luzeko langabetuen garapen mingarria.

Bi urte baino gehiago langabezian daramaten pertsonak 13.200 ziren krisiaren hasieran eta 2014ko abenduan berriz 93.600.


Bi urte baino gehiago langabezian daramaten pertsonak



Bestetik, esan behar da langabezian izena emanda dauden pertsonetatik, 119.914 pertsonak ez dutela inongo prestaziorik jasotzen, 2007an 37.649 ziren bitartean. Hona hemen atal honetako garapena:

**Langabezian dauden
119.914 pertsonak
ez dute inongo
prestaziorik jasotzen,
2007an 37.649 ziren.**

Prestaziorik gabeko langabetuak



3.3.4. LANGABEZIA EZ EZIK, PREKARIETATEA ERE HEDATZEN ARI DA GUREAN

Lana izateak jada ez du bizitza duinik bermatzen. Zaila da, oro har, soldaten datu zehatzak eskuratzea eta ondorioz, lan-munduko hainbat faktore aztertuz eta horietan islatzen diren aldaketa esanguratsuak begiztatuz, hainbat ondorio ateratzeko aukera izango dugu.

Egun sinatutako kontratuen % 93,7 aldi baterakoak dira eta gazteen kasuan % 97ra iristen da. Esan beharra dago, aldi baterako kontratu hauek, kasu askotan hilabeteko kontratuak ere izaten direla, mehatxurako eta lan-baldintza txarrak ezartzeko oso aproposak.

Sinatutako kontratu berri horien ondorioz, behin-behinekotasuna nabarmen igo da. Emakumeek dute oro har, gizonek baino behin-behinekotasun tasa handiagoa baina bestelako ezaugarri batek gaindituko du genero ezberdintasuna: gazte izateak. Gazteen %70ak jasaten du jada behin-behinekotasunak sortarazten duen prekarietatea.

Era berean, prekarietatean eragin dezakeen bestelako errealitate bat azpimarratu beharrean gara: lanaldi partzialena. 2008an kontratuen % 13,2 partziala zen. Lanaldi partzialen ehunekoa lanaldi guztiekiko nabarmen igotzen joan da krisiaren azken urte hauetan eta jada % 17,9an kokatzen da. Era berean, esan beharra dago, lanaldi partzialetan emakumeen presentzia % 81ekoa dela.

Alegia, lan-esparruan aldi baterakotasuna hedatu eta lanaldi partzialak areagotzen ari dira. Horrek prekarietatea sortarazten du eta bereziki emakumeengan eta gazteengan du eragina.


3.3.5. GEROZ ETA LANPOSTU GUTXIAGO HEGO EUSKAL HERRIKO EKONOMIAN

Honetan ere, biztanleria Aktiboaren Inkesta, EPA, kontutan hartzen badugu, 2008tik hona soldatapeko kopuruak behera egin du sektore guztietan, bizi dugun krisiaren izaera anitza agerian utziz.

- Bai gurean eta jada ekonomia gehienetan, langile gehienek zerbitzuetan egiten dute lan. 2008an 823.500 langile ziharduen zerbitzuen sektore zabalean. 2014an berriz, 6.500 lanpostu inguru gutxiago zeuden, hain zuzen 817.000.
- Nekazaritzan 2008an 28.700 langile zegoen eta 2014ean 21.900, alegia 7000 lanpostu gutxiago. Egia esan, lan populazioaren baitan oraindik oso kopuru urria da. Esan beharra dago nekazaritza eta abeltzaintzaren alorra behar bezala aztertzeko, 2008ko krisiari baino, azken 30 urteotako joerari erreparatu beharko diogula, epe horretan 4 baserritatik 3 galdu baitira Euskal Herri osoan. Zoritxarrez, joera horri aurre egiteko ezer egin ezean, Euskal Herriak oso urruti du elikadura burujabetza.
- Eraikuntzan askoz handiagoa izan da jaitsiera hain famatua izan den higiezinaren burbuilaren eztandaren ondorioz. 2008an 117.200 langile ziharduen arlo honetan eta 2014an berriz 61.300 langile. Sektore honetan, ia lanpostuen erdia galdu da beraz.
- Zalantzarik gabe, jaitsiera handiena eta larriena industrian eman da. Industriak Euskal Herriaren ekonomian ez ezik, edozein ekonomiatan duen garrantzia dela eta, atal berezi batean aztertuko dugu.

3.3.6. INDUSTRIAREN AMAIERARIK GABEKO BEHERAKADA

Industria sektoreak aspaldidanik gure herrian garrantzi berezia izan du. Azken urteetako krisiak ordea inoiz ez bezala jo du eta espainiar ereduarekiko dagoen joera eta menpekotasunak, bi gobernu autonomikoen industria-politika ezaren arduragabekeria agerian utzi du.




2008an eta EParen arabera, 314.200 langile ziharduen industria sektorean. 2014an berriz, 238.700ra jaitsi zen industriako langileen kopurua. Sei urtetan beraz, 75.500 lanpostu suntsitu dira Hego Euskal Herriko industrian. Hona hemen azken urteetako garapena:

Sarri, lanpostuen murrizketak “abaguneari loturiko doitzearekin” zerikusia dutela esaten digute, krisi-abagune batean jaitsi, eta

***Sei urtetan 75.500
lanpostu suntsitu
dira Hego Euskal
Herriko industrian;
(...) Era berean, gure
ehun industrialak
suntsitze bidean
jarri da.***

ondoren, ustezko susperraldi baten baitan, berriz ere igoko direnak. Zoritxarrez, azken urteetan, lanpostuak suntsitu diren bezala, gure ehun industria bera izan da suntsitze bidean jarri dena.

EAEren datuak ditugu atal honetan eta 2009tik hona urtero industria ehuna eta lagungarrietarako establezimenduen saldoa oso negatiboa izan da.




Grafiko honek argi erakusten digu urtero milaka eta milaka direla industriarekin zerikusi zuzena duten eta ixten ari diren establezimendu, enpresa edo kooperatiba kopurua, ematen ari diren irekieretatik oso urrun eta gure ekonomiaren etorkizunerako zulo beltz bat utziz.

3.3.7. MAILA TEKNOLOGIKO HANDIKO INDUSTRIA ERE BEHERANTZ

Etorkizunari begiratu nahi badiogu, gure industriak dituen oinarrizko bi ezaugarri kontutan hartu behar ditugu. Lehenik, gure industria gehiena teknologia baxu edo oso baxuko industria dela kontutan hartu behar da eta horren ondorioz, bigarrenik, energia kontsumitzaile oso handia dela. Imajina daitekeen bezala, energia prezioen gorakadak ere izugarri kaltetu ditu industriako hainbat enpresa eta adibide gisa

jada arrunta da soilik gauzez lan egiten duten siderurgiako lantegiak aurkitzea, gauzez energia merkeagoa baita.

Logikoa da pentsatzea teknologia baxuko industria dela krisi garaian galdu duguna eta aurrera begira, maila teknologiko altukoak salbatuko gaituela. Berez, ez dago etorkizunari aurre egiterik maila handiko teknologiarik gabe, baina zoritxarrez azken urteotan, halako industriak ere beherakada handia izan du gurean:



Grafikoak erakusten digunez, teknologia handiko industriaren beherakada ere handia izan da Hego Euskal Herri osoan eta jaitsiera hori are larriagoa da EAEren kasuan (morez EAE eta gorritz Nafarroa garaia). Edonola ere, EAEren datuak biltzen dituen ondoko taulak erakusten digun bezala, lanpostu gehienak maila teknologiko baxuetan galdu dira.

Maila teknologikoa	Langile kopurua (2007)	Langile kopurua (2013)
Altua	11.466	9025
Ertain altua	65.659	52.389
Ertain baxua	116.617	96.812
Baxua	52.963	35.887
Klasifikatu gabea	4.765	9.060
Orotara	255.294	203.174

3.3.8. IKERKUNTZA ETA GARAPENA: ESPAINIAR EREDUAREN ERREFERENTZIA ETA GOBERNU AUTONOMIKOEN ARDURAGABEKERIA

Industriaren beherakadaren atzean edo haren arrazoi nagusia, ikerkuntza eta garapenaren alorrean egiten den inbertsioa legoke edo hobe esanda, egiten ez den inbertsioa. Krisiaren urteetan Hego Euskal Herriko I+Gren gaineke inbertsioa BPGren % 1,9 eta % 2,0 artean mantendu da. Oso inbertsio maila baxua da, kontutan hartu behar baita Finlandiak % 3,32 gastatzen duela, Suediak 3,21, Danimarkak 3,05, Alemaniak 2,94 eta Europako hainbat erakundek gobernu guztiei % 3ra iristeko urratsak eman ditzatela eskatu dietela.

Egia da Espainiaren datua askoz ere txikiagoa dela, % 1,24 hain zuzen, baina horixe bera da arazoa, estatu espainiarreko eredu eta menpekotasun ekonomikoak gurean duela eragina. Gure ekonomiak eta industriak, espainiar ekonomia eta industriarekin zerikusi gutxi du, edo gutxienez orain dela gutxi arte zeharo ezberdinak ziren. Bestelako gauza da norantz goazen, finantza eta kasino ekonomia bultzatu eta babesten denean eta egungo gobernu autonomikoak, UPN eta PNV buru, politika neoliberalak aplikatzen ari direnean.

Azken urteetan gure industriak pairatu duen kolpea, galdu diren lanpostuak, teknologia ertain edo altuko ehunaren kopuru eskasa... guztiak hausnarketa sakon baten beharra eskatzen du. Hausnarketa eta berehalako neurriak hartzeko konpromisoa. Gure herria eta bere langile klasea, finantza oligarka batzuen mesedetan dagoen ekonomian itotzea nahi ez badugu, industria politika eraberritu beharra dago. Ondorioz, lanpostu duinak sortuko dituen industriaren trantsizio teknologiko, sozial eta ekologikoa premia handiko eginbeharra da Euskal Herriarentzat.


3.3.9. BATZUK GEROZ ETA POBREAGOAK, BESTE BATZUK ARE ABERATSAGOAK

Ikusi dugun bezala, sei urte luzeko krisiak eragin kaltegarri ugari ekarri dizkio gure herriari, eta bertan bizi diren herritar gehienei. Ikusi dugu pobrezian eta bazterketa sozialaren arriskuan daudenak geroz eta gehiago direla gure artean. Bestetik, lanpostuen suntsitzea, lan-munduaren prekarietatea eta lansarien beherakadak ere, ondorio nabarmena izan dute lansariek oro har BPGean islatzen duten ehunekoan.

Hala, 80ko hamarkadatik hona eta kapitalismoaren oldarraldi neoliberalaren ondorioz, oro har, Europar soldaten parte hartzea BPGean murrizten joan da. Gogoratu dezagun, adibide gisa, estatu espainolean 1976ean soldatek BPGaren % 68 zirela.

Nola ez, krisi deituriko honetan, Europar soldaten parte hartzea orokorrean mantentzen zen bitartean, estatu espainolaren lan-erreformek eta politikek soldaten parte hartzearen beherakada eragin dute eta horrek noski Hego Euskal Herriko soldatengan eragin zuzena izan du.

Ondorengo grafikoak erakusten digun bezala, honetan ere, Europako herri gehienek eredu eta Espainiako egoera oso bestelakoa da.



Horrek guztiak, errentaren banaketan eragin nabarmena izan du zalantzarik gabe eta antzeman den aldaketa handia ikustera garamatza. Horretarako INEren Bizi Baldintzen inkesta kontutan hartuko dugu. Norbaitek datu zorrotzagoak eskatuko dizkigu atal honetan. Zoritxarrez oso gutxi dago. Aipatu dugun bezala, pentsamendu kapitalistaren ondorioak estatistiketara ere iristen dira eta oso zaila suertatzen da herri baten errentaren banaketaren garapena eskain ditzaketen estatistika edota ikerkuntzak topatzea.

Edonola ere, aipatu inkestaren arabera, 2008an errenta gehien zuen % 20ak Nafarroan errentaren % 33 zuen eta bost urte beranduago jada % 35 zuen. Aredatueskandalagarriagoak eskaintzen zaizkigu EAEren kasurako: 2008an errenta gehien zuen % 20ak guztizko errentaren % 28,9 zuen bitartean, 2013an % 39,9ra iristen zen, hau da, zegoen errentaren bikoitzera.

2008an errenta gehien zutenen %20ak, Nafarroako errentaren %33a zuen, eta bost urte beranduago %35a.

EAEen era berean, errenta gehien zutenen %20ak guztizko errentaren %28,9 zuen eta 2013an %39,9.

Kontutan hartu behar da inkesta batez ari garela, gehien dutenei galdetuz egiten dela eta nonbait eta norbaitek iruzur handietarako joera badu, hain zuzen, sektore hori dela. Ondorioz, hemen atera diren datuak, bai Nafarroarentzat eta bai EAErentzat errealtatearen azpitik daudela ondoriozta dezakegu inongo zalantza izpirik gabe.

EHBilduk aberastasun handien gaineko zerga ezartzeagatik makina bat kritika jaso ditu azken urteotan. Egoerak eta datuak, ordea, argiak dira: krisi hasieran dirua zutenek egun are gehiago dute. Gaur egun jada mundu mailan eztabaida irekia dago krisiak eragin dituen errenta

ezberdintasunak areagotu direla eta egoera horri aurre egiteko hartu beharreko neurrien inguruan.

Krisia deiturikoa, politika neoliberalen ondorioz sistema kapitalistaren zapalkuntzan eragiteko eta ezberdintasun sozialak areagotzeko baliatu dute gutxi batzuk. Noski, langile klasearen eta bazterketa soziala eta prekarietatea pairatzera kondenatuta dauden herritar gehienek kaltetan. Sistema kapitalista bera da, baita “krisialdi” deituriko garaietan ere, errenta ezberdintasunak sortzen eta areagotzen dituen. Ez dezagun ahantzi, aipatutako sistema kapitalistari eutsi eta berau sendotzen lan egiten duten eragile eta pertsonak mundu mailan ez ezik, Europar Batasunean, estatu espainiarrean eta Euskal Herrian bertan ditugula.

4. ONDORIO OROKORRAK

1. Nazioarteko egoera ekonomikoa ez da batere homogeneoa eta beraz, nekez esan daiteke munduko ekonomia hazkunde fase berri batean sartu denik. Ekonomia batentzat esportatzea garrantzitsua izan daiteke, baina herri baten ekonomia horren baitan oinarritu nahi izatea akats larria da, are gehiago gure azterketak islatzen duen errealitate aldakor eta, oro har, kezkarriarekin.
2. Nazioartean nolabaiteko “hazkunde ekonomikoa” izaten ari direnak bi zutabetan oinarritzen ari dira: langileen zapalkuntzan oinarritutako soldata murrizten baitako garapena, edota maila handiko teknologia eta ezagutza oinarritutako produktu eta zerbitzuetan oinarritutakoa.
3. Edonola ere, “hazkunde ekonomiko” hori, oro har, sistema kapitalistak bultzatutako globalizazio ekonomikoaren baitan langile eta herri sektoreen zapalkuntzan, ordain saririk gabeko emakumeen zaintza-lanetan eta natur baliabideen sarraski eta erabilpen arduragabeen oinarritu da. Horren adibide argia litzateke, erregai fosilen amaiera aurreikusten denean eta trantsizio energetikoari bide emateko unea iritsi denean, oraindik orain baliabide fosil horiek kontrolatzeko

burutzen diren gerrak edota kapitalismo basatiak frackingaren alde egiten duen apustu arduragabea.

4. Estatu espainolaren egoera larria da eta dimentsio anitzeko krisia du. Erabat zorpetuta dago eta ez du etorkizunari aurre egiteko baliabide nahikorik, ez eta garrantzi handikoa litzatekeen industria-ehun nahikorik. Gauzak horrela, amaigabeko lan-erreforma eta erreforma fiskalen bitartez, langileei soldatak eta enpresei zergak jaitsiz, langile klasearen baldintzak okertzean oinarritu nahi da eraikitzen ari den agertoki berria.
5. Agertoki berri horren ondorio nagusia, dualizazio soziala da: batzuk geroz eta aberatsago, gehienak are eta pobreako.
6. Estatu espainolak gainera, erabaki irmoa hartu du eta bizi duen krisi politiko eta ekonomikoaren baitan, zentralizazio eta oligarkizazio prozesuak loturik doaz. Herrien erabakiak errespetatzeak espainiar oligarkiaren interesak kaltetu ditzake eta beraz, horixe bera mugatzea dute helburu.
7. Hego Euskal Herria, bertako gobernu autonomikoetako gobernuak diotena diotela ere, ikaragarriko ondorioak pairatzen ari da. Eraikuntzan galdutako 40.000 lanpostuak "higiezin burbuilaren" baitan uler zitezkeen bezala, industrian pairatu den beherakadak eta galdu diren 75.000 lanpostuek alarma gorria piztera eraman behar gaituzte.
8. Madrilgo gobernu ezberdinen politiken ondorioz, baina kasu honetan garrantzi bereziz bertako gobernu autonomikoen arduragabekeriak, gure industriaren egoera teknologikoa oso larria da. Adibide gisa, energia prezioarekiko duen menpekotasuna eta berau gainditzeko egin diren edo, hobe esanda, egin ez diren planek, gure etorkizuna erabat baldintzatzen dute.
9. Elikadura burujabetzan dugun defizita hain da handia eta gure konpromisoa gaiarekiko hain txikia, ezen gai honetan ere egoera

iraultzeko bitartekoak jartzeko unea iritsi baita. Azken hamarkadetako elikadura sistema neoliberalak atzera pauso handiak eragin dizkio Euskal Herriaren Elikadura Burujabetzari, eskubide guztien ginetik korporazio handien etekinak gailentzen baitira elikadura merkantzia soil bilakatuz. Elikadura oinarrizko beharra izanik, gaiari dagokion garrantzia ematea ezinbesteko da herri bezala tokiko elikadura sistema iraunkor, justu eta osasuntsuak eraiki eta elikagaiak fisikoki zein ekonomikoki eskuragarri izateko.

10. Madrilek inposatzen dituen neurri ekonomikoak, denok ordaintzen ditugun bankuen “erreskateak”, inora eramango ez gaituzten porlanaren tren-zulo horretan uzten ari garen dirua, lan-erreformak, sektore publikoaren pribatizazioa, kontra-erreforma fiskalak, politika sozialei ospe txarra eman nahi izatea... horrek guztiak ere, erabakiak hartu ezean, bizi dugun krisi soziala areagotzera eramango gaitu eta estatu espainolarentzat iragarri dugun dualizazio sozial hori ere gurean errealtate bilakatuko da.
11. Egoera ekonomiko eta soziala larria da oso. Hori gezurtatu nahian bestelako diskurtsoak egiteak hiru arrazoi desberdin izan ditzake: hauteskunde kanpainen egotea, arduragabe batzuk izatea edota zuzenean gezurretan aritzea, langileon eskubideen zapalkuntzaren eta baliabide naturalen sarraskian oinarritutako garapen ekonomikoaren bidez gutxi batzuen kapital metaketa justifikatzen jarraitzeko.
12. Errealitate ekonomiko eta soziala ikusaraztea, kapitalisten eta politiko neoliberalen asmo zital horiek salatzea eta gure herriak langile klasearen errespetuan, herritar guztien bizitza duinean, emakume eta gizonen parekidetasunean eta natur baliabideen iraunkortasunean oinarritutako eredu ekonomiko eta sozial berrirantz trantsizioa martxan jartzeko premia larria duela erakustea zen gure asmoa. Hori, eta noski, berriz ere, eredu berri hori eraikitzeko herri honek independentzia ekonomiko eta soziala behar duela azalaraztea. Datuak bederen, argiak dira, kapitalismo, neoliberalismo eta espainiar ereduak kalte besterik ez digute egiten. Har ditzagun gure erabakiak.

5. AURRERA BEGIRA ZER?

Txosten honetan azaldu dugun egoera eta datozen urteetarako aurreikusten duguna ez da inolaz ere xamurra, ez pairatzen ari direnentzat, ez eta berau irauli nahi dugunontzat ere. Deskribatu ditugun baldintza objektibo horiek gure jendarteak bizitza duina izateko dituen aukerak erabat baldintzatzeaz gain, horiek berauek eragiten duten babesgabetasun, beldur eta frustrazio sentrazioak blokeatzaileak ez ezik, mugimendu eta aldaketarako oztopo ere badira.

Zentzu horretan lan bikoitza dugu gure gain hartu beharra: egoera materialki iraultzeko kontzientziak eta gorputzak astintzea baitagokigu. Gure lana dimentsio anitzetan bideratu behar dugu: alde batetik, praktika eta teoria uztartuz mundua behar bezala ulertzeaz gain, eraldatu nahi baitugu; eta bestetik, borroka bide desberdinak batera burutu behar ditugu, instituzioetan, kalean eta ideien trintxeretan batera eta norabide berean eraginez, bakoitza bere funtzio eta tokitik, baina norabide eta helburu berarekin, Euskal Herria independentea, sozialista, feminista eta euskalduna.

***Euskal Herriko eredu
sozio-produktiboa
errotik eraldatu
beharrean gaude.
Trantsizio sozial,
ekologiko eta feminista
martxan da eta egungo
egoeran berau azkartu
eta norabidetzea da
gure papera.***

Horretarako, has gaitezen guregandik bertatik, eta bereiz ditzagun sozioekonomiaren alorrean kontutan hartu beharreko hiru multzo handiak:

- Euskal Herriko eredu sozio-produktiboa errotik eraldatu beharrean gaude. Sistema kapitalistaren logika irauli behar dugu: ekonomia berreskuratu behar dugu herritarron beharrak ase ditzan, ez kapitala meta dezan. Ildo horretan ehun industrialaren garrantzia azpimarratzera gatoz. Industriak garrantzia handia du herri baten

ekonomian eragiten dituen bestelako lanpostu lagungarriengatik eta baita, oro har, beste sektoreekin alderatuta lan-harremanen hobekuntzarako aukera gehiago eskaintzen dituelako ere. Gauzak horrela, zer ekoizten dugun ez ezik, nola ekoizten dugun eta sortzen dugun aberastasuna nola banatzen dugun aztertu, eztabaidatu eta praktikatu behar dugu. Trantsizio sozial, ekologiko eta feminista martxan da eta egungo egoeran berau azkartu eta norabidetzea da gure papera, oldarraldi neoliberalari kalean erantzunez, eta epe ertain eta luzeko perspektiban praktikak errealitate bilakatzen.

- Arazoaren muinari gogor ekiten diogun bitartean, ordea, ezinbesteko zaigu kapitalismo neoliberal patriarkarrak eragiten dituen ondorioei aurre egitea, hain zuzen ere, prekarietatea, pobrezia eta bazterketa sozialari aurre egitea. Argi izan behar dugu ez direla zerbitzu sozialak izango jendarte babesgabeenaren pobreziaekin eta egungo desberdintasunekin amaituko dutenak. Egingo ditugun diskurtso zein praktikek babesgabeen dauden kolek-

***Kapitalismo neoliberal
patriarkarrak eragiten
dituen ondorioei
aurre egiten behar
diegu. Egingo ditugun
diskurtso zein
praktikek babesgabeen
dauden kolektibo
horien ahalduntzea
izan behar dute
helburu beti.***

tibo horien ahalduntzea izan behar dute helburu beti, ezin baitugu inola ere, egun hain hedatua dagoen asistentzialismo eta karitate itsuan erori. Beraz, eskubide sozialen alde sendo arituko gara, pertsonak geure bizi-egoeraren arduradun bihurtu eta estigmatizatzen gaituzten diskurtsoei gogor aurre eginez. Eskubide sozialak, unibertsalak eta aldaezinak dira eta beraz, horien gaineko edozein murrizketaren aurka joko dugu, bai instituzioetan, bai kalean.

- Euskal Herriko ekonomia-jarduera errotik aldatu nahi badugu eta eskubide sozialak bermatuak izatea nahi badugu, nahitaez, erakunde edo sistema publiko indartsua beharko dugu, sektore pribatuan ere esku hartuko duena euskal langile herriaren interesen alde. Gauzak horrela, ezinbesteko izango zaigu ekitate, progresibitate eta berdintasunaren printzipioen baitan erroko erreforma fiskalaren alde borrokatzea, gehien dutenek gehiago ordain dezaten eta Euskal Herriko harreman ekonomikoak behingoz irauli ahal izateko. Aldi berean, banku publiko eta sozialaren banderarekin aurrera jarraituko dugu eta herri honek behar duen finantza sistema publiko eta propioari garrantzi berezia eman behar diogu. Nola ez, zerbitzu publiko duinak bermatzea, kalitatezko hezkuntza eta osasungintza zerbitzuak bermatu beharrekoa eskubideak direla aiantzi gabe.

***Euskal Herriko
ekonomia-jarduera
errotik aldatu eta
eskubide sozialak
bermatuak izatea nahi
badugu, nahitaez,
erakunde edo sistema
publiko indartsua
beharko dugu.***

Hori guztia egiteko, ezinbestean, gure herriak erabakitzeko gaitasuna berreskuratu behar du. Euskal Bidea proposamena aurkezterako unean genion herritarren borondatearen garaia dela. Ekonomia berreskuratu, demokratizatu eta gure herriak, langile klasea eta herri-sektoreak, gure erabaki ekonomiko eta sozialen jabe egitea funtsezkoa da. Erabakiak hartuz, etorkizuna eraikitzea goaz, errotik ezberdina behar duen zapalkuntzarik gabeko Euskal Herria.

Herri-borondatea dagoenean, bidea badago!

EGIN ZURE EKARPENA:

Hiru atal sozia eta ekonomiko edo enbor handi eta hirurak batzen dituen **independentzia ekonomiko eta sozialaren beharra**. Baina hiru enbor horiek adar asko sortu behar dituztelakoan, zure ekarpena ezinbestekotzat jotzen dugu. Zalantzarik ez izan eta zure hausnarketa helarazteko jarriko ditugun bitarteko ezberdinak baliatu itzazu ekarpen hori helarazteko. Bidea egon badago, guztion ekarpenekin bide zabal hori zehaztea dugu aukera eta erronka.

The logo for 'sortu' is displayed in a white, lowercase, sans-serif font. The letter 'o' is unique, featuring a small red dot in its center. The logo is positioned in the bottom right corner of the image, which has a dark gray background with large, overlapping, semi-transparent circular shapes in varying shades of gray.

sortu